Nafarroako Gobierno
Gobernua de Navarra

EUSKAL PILOTA

NAFARROAN INDARTZEKO PLANA

Junio 2018

Nafarroako **Kirolaren eta Gazteriaren** Institutua

Instituto Navarro de **Deporte y Juventud**

FNPV

AURKIBIDEA

Euskal Pilota sustatzeko Planaren jarduketa bideak Nafarroan:

1. Prestakuntza eta “eskolak” pilotaren oinarri modura……
2. Emakumeak eta pilota……
3. Lehiako pilota……
4. Pilota jokorako lekuak eta tresneria……
5. Pilota gure kulturaren eta gure ingurunearen zati modura……
6. Ezarpen gutxiko espezialitateei laguntza……

JARDUKETA BIDEAK

Ezaguna den bezala, Euskal Pilota Nafarroako lurralde guztian, bere diziplina ezberdinetan, antzinatik tradizio handi bat da. Dokumentaturik dauden testuek diotenez, jada XIV. mendearen hasierarako Nafarroan pilotan jokatzen zen eta herrietako egunerokotasunean presentzia nabarmena zuen, eta, gainera, askoren gustukoa zen, bai nobleziarena, bai kleroarena, bai herri guztiarena.

Ordutik ohiko joko honek jarraipen ikaragarri handia izan du eta pilotan jardutea oso zabalduta egon da Nafarroa osoan. Horren adierazgarri Nafarroako herri ia gehienetan dauden frontoi pila (651 frontoi) jokoaz gozatzeko erabili izan direnak eta, baita ikuskizun eta lehiaketa garrantzitsuak garatzeko erabili izan direnak ere.

Hain handia izan da gizartean bere garrantzia eta oihartzuna, non tradizioz Nafarroak pilotari handiak izan baititu profesional mailan zein afizionatuetan bere espezialitate ezberdinetan.

Nahiz eta gaur egun oraindik begi bistan egon bere ezarpen eta jarraipen nabaria, ohiturak eta giza-fenomeno berriak agertu dira kirolean, orokorrean, eragina izan dutenak eta kirol tradizionaletan eta bertakoetan, pilotan esaterako, eragin oraindik handiagoa.

Gaur egungo testuinguruan, kirolaren globalizazioak eta sozializazio nabarmenak kolpatu duen honetan, pilota eta gainerako kirol tradizionalak aukera zabalak izango dituztenak baina mehatxu handiekin zalantza handiko etorkizunari egin beharko diote aurre.

Dudarik gabe, joko eta tradiziozko kirol hauek bizirik irauteko botere publikoen parte hartzea ezinbestekoa dute ekimen pribatuekin batera jarduketa eta garapenaren esparru on bat lortzeko. Zentzu horretan, Nafarroako kirolaren, uztailaren 5eko Foru Legeak, kirol politiken inguruan ezarri zituen helburuen artean kirol jarduera autoktono eta tradiziozkoak sustatzea izan zen.

Halaber, 2015-2019ko Nafarroako Gobernuko Akordio Programatikoak bere ekintzetan “Kirol autoktonoak piztea eta sustatzearen” beharra aipatzen du.

Arestian aipatutako guztia kontuan izanda eta ezarritakoa beteaz, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, berretsi egin zuen tradizionalak diren kirolak, eta, kasu honetan, Euskal Pilota lagunduko zuela.

Horretarako Nafarroako Euskal Pilotaren inguruko ikerketa bat egin zen. Ikerketa honek gaur egungo pilotaren egoera eta honekin lotuta dauden interes eta arazoen eragileen inguruko informazio zehatzago eta ordenatuago bat ematen du.

Ikerketa honek egindako ekarpena oinarri hartuta, Nafarroako Kirol Kontseiluko Kirol Autoktonoen Batzordeak Nafarroako Euskal Pilotaren Federazioarekin batera Sustatze Plan hau landu du jarduketa ildoa eta garatuko diren jarduerak zehaztuz.

Horretarako, **6 jarduketa proposatu dira: Prestakuntza eta “eskolak” pilotaren oinarri modura, emakumeak eta pilota, lehiako pilota, pilota jokorako lekuak eta tresneria, pilota gure kulturaren eta gure ingurunearen zati modura eta ezarpen gutxiko espezialitateei laguntza**

Jarduketa ildo bakoitza jarduera ezberdinak ondorioztatzen diren helburu batetik abiatzen da, eta Nafarroako Euskal Pilotaren Federazioarekin, kirol-klubekin, toki-erakundeekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan garatuko dira.

Jarraian jarduketa ildoak eta bere ekintzak zehazten dira:

1. PRESTAKUNTZA ETA “ESKOLAK” PILOTAREN OINARRI MODURA

HELBURUA: Pilota eskolak bultzatu kirol hastapenaren oinarri modura, prestakuntza funtsezko euskarri hartuta.

Ekintzak:

1. **Pilota eskolak berreskuratu gaur egun ez dauden herrietan:**
   - Eskola berriak abian jarri NEPFko teknikarien bisitaldiak eginda ikastetxe eta toki-erakundeetara eta ezarri behar den programaren diseinua.
   - Laguntza eta baliabideak erraztu eskola abian jartzeko.
2. **Irakaskuntza hobekuntza eskoletan.**
   - Pertsona adituen bitartez aholkularitza teknikoa pilotan hasteko programak garatzeko eta plangintza egiteko honen arduradunak izango direnak lagunduta. Ardura berezia izango dituzte metodologia berriak irakaskuntzan eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak prestatutako kirol baloreen programa.
3. Unitate didaktikoen diseñua hezkuntza zentrotan abian jartzeko
4. NEPFak garaturiko sustapen programei aldeko tratamendua eman.
5. **Prestakuntza** eskoletan honen ardura hartuko dutenen pertsonentzat.
   - Pilotarako zehazki izango diren prestakuntza ikastaroen programazioa.
   - NEPFaren **web-orrian atal berri bat** martxan jarri prestakuntzaren edukiak partekatzeko.

- Diru-kopurua: 25.000€

2. EMAKUMEAK ETA PILOTA

HELBURUA: Pilotan jarduten diren emakumeen kopurua gehitu, erreferenteak sortuaz eta ikusgaitasuna emanez. Azken finean, pilotan dagoen berdintasun eza gutxitu NKGIaren Kirola eta Emakumea Planaren ildotik jarraituta.

Ekintzak:

1. Emakume pilotarien **lehiatzeko aukerak gehitu**:
   - Emakumeei zuzendutako lehiaketen antolakuntza lagundu; deialdi ezberdinetan puntu-kopuru handiagoa emanda eta kontuan harturik gaur eguneko errealitatea lehiaketetan.
   - Emakume pilotarien lehiaketak erakarri.
   - Lehiaketa ofizialetan Nafarroako emakumeen parte hartzea zabaldu, GRAVNIan esaterako.
2. Hitzarmen bat ezarri FMIF, NEPF eta kluben artean emakumeek pilotan jardun dezaten laguntza zehatzak jarrita.
3. Emakume pilotarien **ikusgaitasuna** gehitu, hurrengoen bitartez:
   - Promozionatu daitezkeen bideoak egin eta hedatu.
   - Hedabideetan kirolarien **elkarrizketak eta erreportajeak**.
   - **Pilota partiduen emankizunak.**

Aurrekontua: 36.000 €

3. LEHIAKO PILOTA

HELBURUA: Maila afizionatuko pilotarien kirol-maila hobetu.

Ekintzak:

1. Gaur egungo sistema egituratuko duen **lehiaketako egutegi bat** berrikusi eta bateratu pilotarekin harremana duten ordezkariekin lan batzorde bat eratuta.
2. Nazionala eta autonomien arteko izaera izango duten lehiaketa ofizialetan parte hartzeko **laguntzak gehitu**.
3. Lehiaketarako behar den kiroleko materiala lortzeko **laguntzak gehitu**.
4. Aukeraketa programa bultzatu kirol-errendimenduko deialdiaren bitartez
5. Etorkizuneko pilotariak izango direnei zuzendutako **entrenamendu programak** lagundu **Nafarroako hiru eremutan**. (Baztan-Malerreka, Sakana, Iruña)
6. Espainiako Pilota Federazioarekin elkarlanean aritu pilotaren selekzio programa ezberdinak garatzeko.
7. **App mugikor** bat sortu pilota lehiaketen jarraipena eta komunikazioa modu zuzen eta pertsonalizatuan izateko. (berriak, ikuskizun sailean, lehiaketa, sailkapena, pilotarien jarraipena, talde gustukoenak eta oharrak besteak beste)
8. Pilota profesionaleko enpresei pilota afizionatua sustatzen laguntzeko proposamen bat aurkeztu.

   Aurrekontua: 40.000 €

4. PILOTA JOKURAKO LEKUAK ETA TRESNERIA

HELBURUA: Kirol arlo bakoitzeko tresneria eskuragarriago eta egokituago bat lortu eta pilotan jardutearen alde egiteko eta gehitzeko dauden lekuak bete.

Ekintzak:

1. **Laguntza zehatzak erabilita** pilotako tresneriaren eraberritzea bizkortu.

2. NLZarekin batera **ikastaro bat antolatu pilotak egiten ikasteko** eta tresneria konpontzeko.

3. **30 metroko frontoi bat prestatu**, batez ere, Nafarroako selekzioek gaur egun duten eskaerari erantzuteko.

4. Frontball-eko kantxa irekiak prestatzeko laguntza.

Aurrekontua: 100.000 €

5. PILOTA GURE KULTURAREN ETA GURE INGURUNEAREN ZATI MODURA

HELBURUA: Nafarroako kulturaren osagai modura pilotaren balioa handitu eta hedatu.

Ekintzak:

1. "**Frontoiak&Pilota Tailerra**" antolatu Vianako Printzea Kulturako Zuzendaritzarekin, Iruñako Udaletxearekin eta NEPFarekin lankidetzan. Hurrengo helburuak izango ditu:
   - Pilotaren munduan Nafarroak duen paper bikainaren garrantzia azpimarratuko duen "Kidego akademiko" bat sortu.
   - Nafarroako Kultur ondarearen eta Pilota munduaren lekuko ekimen berrien eremu sortzailea izan.
   - Nafarroako hiriburua ere, Iruña, Pilotaren Hiriburu bezala Ikusarazi.
   - Pilotaren ohituren eramaileen eta nafarroako kultur ondareen oinarrietan adituak direnen eta hiritarren elkargune bat izan.
2. **Laxoa Elkarteari lagundu** Kultura-intereseko ondasuna (KIO) dela Eskularruz jokatzen den Laxoa eta Bote Luzea dioen txostenaren izapidea lortzen.
3. **Euskararen erabilera** sustatu komunikabide ezberdinak erabiliz, tresnen lanketa eta beste esparru batzuk. Ikastaroak prestatu Federazioko langileentzat.
4. Lankidetza programen garapena mugaz bestaldekoekin eta beste AE batzuekin pilotaren inguruan.
5. Nafarroako diasporarekin pilota partiduak antolatu eta parte hartu.
6. Nazioarteko Pilota Federazioarekin denen intereseko diren gaietan elkarlanean aritu.

Aurrekontua: 20.000€

6. EZARPEN GUTXIKO ESPEZIALITATEEI LAGUNTZA

HELBURUA: E**torkizuneko belaunaldiei ezarpen gutxiko espezialitateak igorri eta bizirik jarraitzea lortu eta hasten joan daitezen bideak ezarri.**

Ekintzak:

1. **FMIFtik Erremonte Euskal Jai Fundazioari** bultzada eman Nafarroako erremontearen espezialitatea sustatzeko.
2. **Laxoa elkarteari** laguntza berezia eman sustatzeko laxoa modalitatea.
3. **Cesta Puntari laguntzak eman Nafarroako bereian programak garatzeko.**
4. Pilotaren espezialitateak suspertzeko ekimenak:
    - Didaktiko/Historikoa den materiala hedatu.
    - Jokorako lekuen seinaleztapena eta espezialitate bakoitzeko ezaugarrien deskribapena.
    - Bideoak ekoiztu beren hedapenerako.
    - Pilotaren materiagabeko ondarearen bilketa eta argitalpena.
    - Erakustaldiak eta erakusketak egin.

Aurrekontua. 22.000 €


Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra